

Luisa Etxenike, Foru Liburutegiko irakurketa txokoan emango den hitzaldiko protagonista

Luisa Etxenike (Donostia, 1957) idazlea Irakurketa Txokoaren edizio berri baten protagonista izango da bihar, hilak 31 (osteguna), arratsaldeko 19:00etan, Foru Liburutegian. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak antolatu du jarduera hau, urtea amaitu arte, eta hilean behin saio bat egongo da (txandaka, behin euskaraz eta hurrengoan gaztelaniaz).

Irakurle talde horien bidez, irakurketan interesatuta dauden eta esperientziak, sentsazioak eta pentsamenduak komunikatzeko gogoia duten pertsonak biltzen dira. Idazle eta irakurleen arteko topaleku bilakatu da.

Egileek beren azken lana komentatuko dute edo idatzi edo irakurri dituztenen artean gogokoena, eta entzuleak beren gogoetenpartaide egingo dituzte.

Oraingoan, Etxeniketik bere 'El relato en la mirada de Ignacio Aldecoa' liburua aukeratu bere lanaz hitz egiteko. Gaztelaniaz izango da hitzaldia.

Donostiar honek honako argitalpenak atera ditu, besteak beste: 'El ángulo ciego' (Euskadi Saria 2009); 'Los peces negros'; 'Vino'; 'El mal más grave' eta 'Efectos secundarios', eta 'Ejercicios de duelo' eta 'La historia de amor de Margarita Maura' bildumak.

Alex Oviedo izango da moderatzailea.

Datozen hileetan, hainbat lagun etorriko dira topaketetara: Anjel Lertxundi eta Inazio Mujika, Francisco Javier Irazoki, Eider Rodríguez, Maria Maizkurrena eta Eli Tolaretxipi, eta, zikloa bukatzeko, Bernardo Atxaga, azaroan.